

Egitea edo ez egitea



DIANA FRANCO EGUREN

Joan den astean topaketa polit bat izan dut, aspaldi ikusten ez nuen emakume talde batekin, eta egitearen inguruan aritu gara berbetan, teknologia eta sorkuntza espazioei lotuta.

Emakume hauetako nagusia, jubilatze mugan dagoena, programatzailea da eta kodea programatzen gozatzen du. Beharbada, hau irakurrita uler daiteke bere lanean gozatzen duela, baina ez da kasua. Programazioaren gozamenen murgiltzen da beste edonork zeramikan, joskitzan, baratzean... egingo lukeen bezala, ez inoren helburak betetzeko, baizik eta norberaren erronkei loturiko jarduerara gisa. Beste emakume batek zioen ezinegon sortzen ziola egiteari zuzendutako espazioen ideiak, egin behar izatearen espektatiba horrekin deseroso sentitzen dela; berarentzat, egiteko espazioak baino, egiteko espazioak direla interesgarriak. Hirugarren batek adierazi zuen horrelako tokietan gorputza faltan botatzen duela. Gizakiok sortzen ditugun espazioetan, orokorrean, eta are gehiago teknologiarik loturikoetan, non eginkizun gehienetan gailu bati lotuta eskuak eta adimena diren erdigune, gorputza gelditu dagoela zioen. Halako espazioak ez ditu gogoko, faltan dituelako gorputzaren potentziala hobeto erabiliko luketen tresnak, mugatuta sentitzen delako espazio horietan.

Beharbada, datorren astean oporrak izango dituzu, eta oporretan oso dinamika interesgarria ematen da askoren bizitzetan: aukera. Egiteko aukera, egiteko aukera, gorputza astintzeko aukera... Beharbada, gizarteotako sorkuntza espazioetan dugun arazo handiena da oso eredu murriztuak direla, guztiz bideratuak, bideragarriak izateko bidean, muga gehiegirekin diseinatuak. Ez dut uste, ordea, ditugun gizarte sistemen eta mundu ikuskeren baitan, epe laburrera, emakume hauek partekatu zizkidaten ikuspuntu interesgarriak jasoko dituzten espazioak instituzioetatik sortzeko aukera egongo denik. Beste leku batzuetan begiratu eta egin beharko dugu. ●

Nafarroako funtzio publikoa, greban

ERREDAKZIOA

Nafarroako funtzio publikoan 30.000 langile zeuden grebara deituta joan den apirilaren 9an. Deialdiak jarraipen desberdina izan zuen sektorearen arabera, eta sindikatuek salatu dute foru gobernua "abusuzko" gutxieneko zerbitzuak ezarri dituela, nahita.

LAB, Afapna, CCOO, ELA eta UGT sindikatuek deituta greba egin dute Nafarroako funtzio publikoan ajoan den astean, Funtzio Publikoaren Estatutua berritzea eskatzeko eta behin-behinekotasuna murriztea aldarrikatzeko, besteak beste. Jarraipena desberdina izan da sektorearen arabera; grebak arrakasta handiagoa izan du irakaskuntzan, baina ez hainbeste Osasunbidean edo administrazio publikoko langileen artean -%4,8 eta %13,8koa izan da, hurrenez hurren, Nafarroako Gobernuaren arabera-.

Sindikatuek salatu dute Nafarroako Gobernuak ezarritako gutxieneko zerbitzuak "abusuzkoak" izan direla sektore askotan, eta horrek eragin nabarmena izan duela jarraipenean. Hala, Osasunbideako zenbait arlotan %80koak izan dira gutxieneko zerbitzuak, eta kasu batzuetan

%100ekoak: "Langile publikoek zail dute sektore askotan greba egin ahal izatea", azaldu dio CCOOko Unai Alavak Euskalerrri Irratiari.

"Langile publikoek zail dute sektore askotan greba egin ahal izatea"

Eguerdian Iruñeko Nafarroako Jauregi parean elkarretaratu ziren grebalariak, baina manifestazio jendetsuena arratsaldekoa izan zen eta ehunka lagun bildu zituen, Iruñeko Sarasate pasealekutik abiatuta. Amaieran, LABeko ordezkari Iosu Arraizak esan zuen "prest" daudela mobilizatzen jarraitzeko.

Sindikatuek salatu dute urtebete daramatzatela Funtzio Publikoaren Estatutua berritzeko bidean aurrera egin gabe eta Nafarroako Gobernuak Funtzio Publikoko kontseilari Amparo López egin dute egoera horren arduradun: "Prozesua modu posible guztietan boikotatzen eta gure lan guztia pikutara botatzen saiatu da", salatu dute. ●

